



## BERTSO BERRIAK

Aitor Alaiñur

# Gizon onaren bentajak

### I

Kaixo Xenpelar idazten dizut gizon onaren bentajak jakin ditzazun, nahiz ia entzun zure ijiji-ajajak. Ez gara horren señoitoak, ez gara hain maharajak... Edozein etxek nahiko lituzke gu bezalako alhajak.

### II

Garaiak nola aldatu diren jakingo balu Txirritak! Zazpi lan egun dauzka asteak, baina zuloa patrikak... Ugaldu dira langintzak eta ugaldu dira fabrikak: orain erratza eta fregona dira gure erremintak.

### III

Esnatu eta jeikitzerako, aita zintzoak bezela, ondo dakigu seme-alabak prestatu behar direla. Honi esnea berotu eta hari aldatu pardela... Aritzen denak bakarrik daki horren erraza ez dela!

### IV

Haurtzaindegira eraman eta lantokirako tartean soilik dabilta etxeko lanak guregandik apartean. Eta han ere lan egin behar nagusi denen artean, behintzat soldata lan egin gabe etxeraten den artean...

### V

Sutan jartzean probatzen denez eltzea nolakoa den, ikustekoa da sukaldean zeinen mainatsuak garen! Tortilla sarri prestatu arren arrautzak bota baino lehen, jaki guztiak dira gozoak norberak egin ondoren.

### VI

Xaboiak eta leungarriak aski dituzenez beti, labadorari ere eskerrak nola eman bagenekil! "Start" sakatu eta gerora soilik atea ireki... Gure arropa gobernatzan du geronek baino hobeki!

### VII

Hamaika gailu daude etxean eta askotan zalantzan egoten gara behar duguna ipini aurretik martxan... Xerrekin edo arroparekin maiz aritzen gara plantxan, hartutakoa dagokiena izateko esperantzan.

### VIII

Garbitasuna gure etxean sarri dago erbestean... Nahiz maiz garbitu beti aritzen da gehiagoren eskean! Aspiradora esku batean eta trapua bestean, beltzune asko desagertzen da gure kopetak belztean.

### IX

Kalera ere irteten gara, nahiz eta gutxi aukeran, gaurko legeek derrigortuta abstemioen tankeran. Tabernariak krisian daude, sagardogileak greban... Kotxea hartzen baldin badugu ezin dugulako edan.

### X

Alkoholik gabe bizimodua denez erabat kaskarra, egarriaren erruz sarritan izaten dugu liskarra. Legea egin zuen pertsona nahiz izango zen azkarra, baldin neronek ikusi banu hautsiko nion bizkarra!

### XI

Gaurko gizonak izan behar du oso gizon zerbitzala, langile fina etxean eta kalean berriz formala. Orain guztia da erdibana eta eskerrak den hala! Dena guretzat den egunean Jaunak anpara gaitzala!

### XII

Idatzi dizut Xenpelar, nola gabiltzan jakin zenezan. Lazkao-Txikik par egingo du ez baitu hartzen sorpresan; baina, mesedez eskatzen dizut, Txirritari deus ez esan bizi ez duen garaigatik ere sufritu ez dezan.

**DOINUA:** "Eguna pasa lanean eta" edo "Andre txarraren bentajak".



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.